

OSO GUNEKO ERAKASKERA

1995-96

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Nor da Piarres?
2. Nolako mutikoa da?
3. Langilea dea?

PIARRES

II

Lanean

Pottoka iraganarazteaz eta pilotan ala musean irabazteaz bertze-rik bazakien Piarresek, eta berak amari erran bezala, aztaparretan min guti zuen gero, biharamuncan, lanari lotzeko.

Aboztuan harbien erateko edo sorhoen egiteko, aitarekin bera aski zen bethi, nihongo muthilen laguntzarik gabe. Eta, orgak mukurru gain gaineraino betherik, Gantxume bere anaia ttikiena ~~sega~~-kaskoan belharraren erdirat jostetan arthikirik, Oihanalderat, ien aintzinean, akiluq eskuan heldu zelarik, zinez egia... ederra zela gure Piarres! Errege<sup>rik</sup> egundaino ez baita ederrago sartu hiri nausian, bere errege-makila eskuan!...

Piarresen loria, gero, buruilaren ondarrean edo oraino urrian, etxe ondoko paretari aztaparka lothuz, suge beltz alimale bat iduri luzatuz zoan mahasti zaharrean! Mahats-biltzaileak oro hirriz eta kantuz, arnoz hanpatu<sup>1</sup> mulko urhezkoeri hortzez asikika, —haixtur edo kanit sista<sup>2</sup> bezenbat hortz-asiki— gogotikago lothuak hatik ixkiriot<sup>3</sup> edo odre zaharreko mahatsari; oiharreak, saskiak, zurezko untziak, leher egiteko heinean bethcak! Eta ilhuntxean, gero, etxeko ala auzoko, oro Oihanalderat heldu, karrankaz orga handiak, kantaz oraino mahats-biltzaileak, azken sistako bat elgarri karka-raka<sup>4</sup> igorritz, eta bas-herri hura guzia airean emanetz!

Goizetik Garramun edo Zumalakardirat joanik, Piarresen eta haren aitaren lanak, han aldapa borthitzean, iratze gorria sega handiaz lurrerat arthikitzeko, maltxotan gero emaiteko, eta azke-nean, Ganix tarteko semeak harat ekarri orgetan sar-ahala tinkatze-

jostetan arthikirik (aurthikirik)  
hortzez asikika (ausikika)

(II) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Bertzerik bazakien 32. Bera aski zen.
33. Luzatuz zoan 34. Gutti zuen.

31. JAKIN. Indic Imparfait.

O S.

O P.

Nik nahien = je le savais	nahzien = je lessavais
Hik nahien = tu le savais	nahzien = tu lessavais
Zuk zinakien = os le saviez (o)	zinahzien = os lessaviez
Harek zakien = {	zahzien {
Guk ginakien = {	ginahzien {
Zuek zinakiten = {	zinahziten {
Heiek zakiten = et	zahziten etc.

32. IZAN. Indic Imparfait.

Ni nintzen = j'etais
Hi nintzen = tu'etais
Zu zinen = os etiez
Hura zen = il'etais
Gu ginen = ns etions
Zuek zinezten = os etiez (p)
Heiek ziren = ils'etaient

Potentiel Imparfait avec ahal.

= izaiten ahal nintzen = je pouvais être.

33. JOAN. Aller. Indicatif.

Present	Imparfait
Ni noa = je vais	nindoan = j'allais
Hi hoo = tu vas	hindoan = {
Zu zoatzi = os allez	zinoatzin = {
Hura doa {	zoan = {
Gu goatzi {	ginoatzin = {
Zuek zoatze {	zinoatzten = {
Heiek doatzi et	zoatzin etc.